

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****PEÑACERRADA-URIZAHARRA UDALA****Hasierako onespena ematea 3/2023 kreditu gehigarriari**

Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko uztailaren 27an egindako bilkuran, 3/2023 zenbakiko kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Espediente hori jendaurrean egongo da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Osoko Bilkurari.

Espedientea behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada. Denek jakin dezaten ematen da argitara.

Peñacerrada-Urizaharra, 2023ko abuztuaren 8a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*